



HIE 2 ARALARKO PAPELERA-RI BURUZKO AMEZKETAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 2. ALDAKETAREN IRISMENEKO DOKUMENTUA

AURREKARIAK

2024ko uztailaren 30ean bidalitako idazki baten bitartez, Amezketako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion has zezala Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketaren, HIE 2 Aralarko Papelera-ri buruzkoaren, ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura, 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, 17. eta 28. artikuluen artean araututakoa, eta, ondore horietarako, hasierako dokumentu estrategikoa eta aldaketaren 2024ko uztailako zirriborroa bidali zuen.

Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoa, Aralarko Parkearen eta KBEaren barruko eremu batean egitekoa da, ez du leku horren kudeaketarekin loturarik, edo ez da beharrezkoa hartarako, eta gune babestu horiei eragin diezaike. Gainera, ulertu da ez dituela betetzen aldaketa txikitzat jotzeko baldintzak, 21/2013 Legearen 5. artikulua definitzen duen moduan. Ondorioz, Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa horrek, HIE 2 Aralarko Papelaren ingurukoak, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egiteko betekizunak betetzen ditu, 21/2013 Legearen 6.1. artikulua eta 10/2021 Legearen 72.1. artikuluari jarraituz.

Horri dagokionez, 21/2013, 2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta 10/2021 Legeak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, planak eta programak prestatzerakoan ingurumen alderdiak txertatze aldera, Ingurumen Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak, ingurumen organoa denez, irismeneko dokumentu bat egin behar du ingurumen azterketa estrategikoak izan behar duen hedadura, xehetasun eta zehaztapen maila finkatzeko. Aldez aurretik, dena den, kontsulta egin behar zaie ukitutako administrazioei eta pertsona interesdunei.

Horrenbestez, 10/2021 Legearen 62. artikuluari jarraituz, eta 29/2024 Foru Dekretuak, urriaren 2ekoak, Ingurumen Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoarekin bat, Ingurumen Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak irismeneko dokumentu hau egin zuen, Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketari, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari, buruzkoa, hain zuzen.

HIE 2 ARALARKO PAPELERA EREMUARI BURUZKO AMEZKETAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 2. ALDAKETAREN ANTOLAMENDUKO ALTERNATIBAK

Lehenik eta behin, labur-labur deskribatuko dira HAPOaren aurrerakina izapidetzeko prozesuan aintzat hartutakoak. Horien barruan, Zumadi udal eskolaren kokapenari lotutakoak eta Papel Aralar enpresaren instalazioak zabaltzeari lotutakoak bereiz daitezke.

A. Zumadi udal eskolari lotutako alternatibak

1977an, Papel Aralar enpresak egungo Zumadi udal eskolako partzelaren eta bertako eraikinen erabilera laga zuen, ikastetxe gisa erabil zitezen, baina lurren jabetzak berea izaten jarraitu zuen, eta halaxe jarraitzen du gaur ere, pilotalekuarena eta eranskinena izan ezik, haiena Amezketako Udalari laga baitzitzaion, 2019ko abenduko akordio baten bidez.

2018ko ekaineko HAPOaren aurrerakineko dokumentazioan honako bi alternatiba hauek planteatu ziren eskolaren kokapenari lotuta:



- *1. alternatiba* Aukera honetan, proposatzen da herri eskola Larraitx Bidea eremura mugitzea, nahiz eta gaur egun dagoen lekuak zuzkidura izaera izaten jarraituko lukeen eta partzelaren uholde arriskuarekin bateragarria izan beharko duen erabilera oraindik ere zehazteke dagoen.
- *2. alternatiba* Proposatzen da egungo herri eskola Jauregi ingurura mugitzea, eta paper fabrikaren eremuko egungo partzela paper fabrikaren osagarri diren jarduera ekonomikoetara bideratzea, baina industria astuneko jarduerak baztertuta.

Bi alternatiba horiek hainbat eragozpen larri dituzte; besteak beste, eskola berriak eraikitzeke behar diren baliabide ekonomikoek tokiko ogasunaren gaitasuna gaintzen dutela eta udalaz gaintzeko entitateetatik ez dela finantzazio konpromiso garbirik lortu. Halaber, kokapen berria edozein izanik ere, egun ez bezala, Amezketako herrigunearen erdian egoteari utziko lioke, eta Papel Aralar enpresaren industriako partzelak sortzen duen herrigunearen eta Ergoiena auzoaren (Ergoiena-Kaxeta) arteko banaketa murrizten laguntzen zuen kokagune horrek. Azkenik, eskolen egungo partzelarako proposatutako erabilerak ere arazoak dakartza; izan ere, 1. alternatiban, ez dago tokiko baliabide ekonomiko nahikorik aldi berean eskola berriak eraikitzeke eta egungoak ekipamendu berri bihurtzeko; gainera, lurzorua titulartasunak ere arazoak ekar litzake, bere garaian Papel Aralarrek egindako lagapenaren xedea hezkuntza erabilerarekin lotuta baitzegoen eta erabilera aldatzeko, beraz, lagapena amaitzea ekar baitezake. 2. alternatibak proposatutako moduan partzela industria erabilerara bideratzeak beste arazo batzuk ekarriko litzuke, besteak beste, herrigunearen eta Ergoiena auzoaren arteko banaketa handitzea.

Hori dela eta, udalak bi alternatiba horiek baztertzea erabaki du. Halaber, 2022-2027 aldirako plan hidrologikoak aurreko bertsioak baino askoz aukera gehiago ematen du, instalazioak berritzea ahalbidetzen baitu, baita zabaltzea ere, betiere uholde arriskuak dakarren zaurgarritasuna txikitzeke neurriak ezartzen badira. Horren guztiaren ondorioz, udalak berriz heldu dio udal eskolen partzelaren titulartasuna eskuratzeko estrategiari.

B. Papel Aralar zabaltzeari lotutako alternatibak

Papel Aralarrek, Amezketako Udala HAPOa izapidetzean udal eskola beste norabait mugitzea aztertzen ari zela jakindakoa, plan horretarako bi alternatiba osagarri, aurkeztu zituen, elkar baztertzen ez zutenak.

B.1. Udal eskolen egungo partzelan, horiek mugitu ondoren, industria erabilerak ezartzea.

Papel Aralarren proposamenak bi alternatiba aurkezten ditu eremu horretako etorkizuneko industria erabileretarako:

- *Sozietatearen egoitzarako eta ordezkaritza espazioetarako erabiltzea*

Hasierako lehen proposamen bat egin zen: oinplano berriko eraikin bat eraikitzea, BS+2 profilekoa. Honako erabilera hauek aurreikusi ziren eraikin horretarako eta zegozkion gainazal etarako: bulegoak eta bilera-gelak (678 m²), osasun azterketetarako botikina (30 m²), langileen aldagelak (132 m²), jantokia (65 m²), laborategiak (180 m²), sozietatearen egoitza (255 m²), showrooma eta bezeroen harrera (400 m²).

- Enpresak egun egiten ez dituen *ekoizpen jardueretarako erabiltzea*, adibidez, fabrikatutako produktuak manipulatzeko eta eraldatzeko.

B.2. Industria partzelan bertan aurreikusitako zabaltzeak.



Proposamen nagusia izan zen mendirantz plataforma bat sortzea, biltegi automatiko berriaren eta kogenerazioko zentralaren artean, ekoizpenerako eraikin berri bat egiteko, enpresak identifikatutako behar berriei erantzuteko.

Zabalgune horretan bi ekoizpen lerro berri instalatuko lirateke.

- Lehen lerroa, 2 zenbakiko makina ordeztzeko, irizpide modernoagoekin, eta bi solairurekin (solairua eta sotoa), egun makina guztiak horrela eraikitzen baitira (egungoak bakarra du). Egungo lekuan birgaituz gero, 6 hilabetez geldirik egon beharko luke, eta hori ez da bideragarria, inondik ere.
- Toallatxo hezeak fabrikatzeko paperaren ekoizpena handitzeko bigarren lerro bat, enpresak irizten baitio plastikoaren aurkako araudi berriei oso posible dela epe motz edo ertainean eskaria asko handitzea.

Hala eta guztiz ere, alternatiba horiek guztiak gaituta eta baztertuta daudela ulertzen da, eta, hortaz, jarraian teknikoki eta ingurumenari dagokionez egun bideragarritzat jotzen direnak deskribatuko dira.

A. *0. alternatiba, edo esku ez hartzea.* Arau Subsidiarioen aldaketa puntualak, 2018an onetsitakoak, ezarritako antolamenduak dakarren egoera finkatzean datza. Ondorioz, Papel Aralar enpresak epe laburrean aurreikusitako jarduketetarako eraikigarritasuna bakarrik izango luke, baina ez epe ertainerako eta luzerako aurreikusitakoetarako. Teorian, zabaltze horiek Amezketa udal mugartetik kanpo egin litezke, baina praktikan konplexua izango litzateke, Amezketa aurreikusitako lekuan egun dauden instalazioekin orotariko sinergiak baitaude. Ekoizpen gaitasuna kanpora eramateko, Amezketa aurreikusitakoa baino askoz azalera handiagoa erabili beharko litzateke, askoz eraikin eta instalazio gehiago egin beharko lirateke, eta autohornikuntza eta enpresaren deskarbonizazioa indartzeko aurreikusitako zabaltzeak zentzugabe utzi. Ingurumenaren ikuspuntutik zorrotz begiratuta, baliabide, material, energia, lurzoru eta abar gehiago kontsumituko lirateke. Gainera, ez litzateke posible izango Amezketa Udalak Zumadi udal eskolaren titulartasuna doan eskuratzea hirigintzako ordain moduan, eta Papel Aralarri erosteak tokiko ogasunak nekez ordaindu ahalko lukeen kostu ekonomikoa ekarriko luke, egungo instalazioak egokitzeko eta modernizatzeko inbertsioak aintzat izan gabe.

B. *1. alternatiba* Aldaketa honen oinarria da, eta Amezketa Udalaren eta Papel Aralar SA enpresaren artean adosten ari den hirigintzako hitzarmena garatzen du. Industriako partzela eta haren gaitasunak zabaltzeak eraikigarritasuna 3.700 m² handituko du, eraikin berriak egiteko eta daudenak zabaltzeko, honako behar hauek erantzun ahal izateko:

- Toallatxo heze biodegradagarri eta barreigarrietarako oinarritzko materiala ekoizteko gaitasuna handitzea. Bi solairuko eraikuntza berri bat planteatzen du: 1.958,11 m²-ko sotoa eta 3.458,32 m²-ko beheko solairua dituen, biltegi automatikoaren eta kogenerazioko instalazioaren artean. Hori egikaritzeko, hirigintza eremua lurzoru urbanizaezinerantz zabaltzeko behar da (2.995 m²), eta lur-erazketak handia egin beharra dago. Eraikuntzaren altuera ez litzateke alboko biltegiarena baino handiagoa izango, eta epe laburreko jarduketak izango litzateke, are gehiago plastikoan oinarritutako toallatxo hezeak debekatzeko aurreikusitako araudia onesten bada.
- Energia autorhorniketarako eta enpresa deskarbonizatzeko eraikuntza berria. Planteatu da eraikin berri bat eraikitzea kogenerazio instalazioaren eta partzelaren hegoaldean kokatutako eraikinaren (1. pabiloia) artean. Egungo plangintzak aurreikusten du leku horretan eraikin bat egitea, baina proposamen berriak oinplanoko okupazio handiagoa



planeatzen du, eta lur erauzketa handia egin beharko litzateke, gainera. Hortaz, planteatu da eremua Papel Aralarren jabetzapeko lurretan zabaltzea, egikaritu beharreko obretarako tartea izan dezan (1.065 m²). Bi solairuko eraikin bat proposatu da, gehienez ere 2.205 m²-koa solairu bakoitzeko. Beheko solairua egungo bidearen kotan geratuko litzateke, eta lehen solairua, egungo kogenerazio instalazioaren kotan. Ideia da energia metatzeko sistema bat ezartzea, argindarra merkeen dagoen orduetan kargatzeko eta instalazio industrialak argindarra garestien den orduetan hornitzeko. Instalazio hori egungo kogenerazio instalazioaren osagarria izan liteke, edo haren ordezkaria, sistemaren errentagarritasun ekonomikoaren arabera. Epe ertain edo luzeko jarduketak gisa planteatu da, eta dagokionean eskuragarri dagoen teknologiaren arabera izango da (gatz-sistemako galdara elektrikoa, hondar bateriak eta abar).

- Etorkizuneko zabaltzeetarako soberakina Aurreikusitako gainerako eraikigarritasuna erreserbako soberakin gisa geldituko litzateke, oraindik erabaki gabeko jarduketetarako, esaterako, kogenerazio zentrala ordeztzeko, egungo plangintzan aurreikusita dagoen moduan lehengaien biltegian (1. pabiloia) solairuarte bat edo goiko solairu bat egiteko, eta abar.

Zumadi udal eskolaren partzela birmoldatzeari dagokionez, 2016ko hirigintzako hitzarmenean eta Arau Subsidiarioen 2018an onetsitako aldaketaren lehen bertsioetan planteatutako lerro berari jarraituko litzaioke, pilotalekua eta eranskina 2019an laga zela kenduta.

Hasierako dokumentu estrategikoak bi alternatibak aztertu eta konparatu zituen, ingurumenaren hainbat alderditan izan ditzaketen inpaktuen aldea kontuan hartuta. Hona hemen azterketa horren ondorioz garrantzitsuenetako batzuk:

- *Uholde arriskuarekiko eragina.* 1. alternatibako zabalpenak uholde arriskua duten gunetatik kanpo daude, baina eskolak, egun, uholde arriskuko gunean daude. Udal eskolak lagaz gero, uholde arriskua txikitzeko esku-hartzeak egin beharko dira, oraindik definitu gabeak, eta, hortaz, zentzu horretan, 1. alternatibaren inpaktua positiboa izango litzateke.
- *Lehentasunezko habitatekiko eragina.* Bi alternatibetan, Batasunaren intereseko lehentasunezkoa ez den 6510 *Altitude txikiko segarako belardi pobreak* habitatari eragiten zaio. 1. alternatibak azalera handiagoari eragiten dio, baina lurraldean duen banaketa zabala eta eragin horren tamaina txikia aintzat hartuta, hasierako dokumentu estrategikoak iritzi zion sortutako inpaktua onargarria zela guztiz.
- *Katalogatutako paisaiekiko eragina.* Bi alternatibak Amezketaiko arro bisualean daude, zeina EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoan jasota baitago. 1. alternatibak instalazio berrien inpaktu bisuala arintzeko neurriak ditu.
- *Lurzoru antropizatua erabiltzea.* Bi aukerek erabiltzen dute, baina 1. alternatibak gehiago, lurzoru urbanizaezinari eragin arren, eraikuntzaren eta erabileraren dentsitatea askoz handiagoa baita.

Horrenbestez, 1. alternatiba hautatu zen, Amezketaiko Udalak eta Papel Aralarrek adostutako hirigintzako hitzarmenean ezarritako helburuak betetzeko aukera ematen baitu, eta hasierako dokumentu estrategikoaren iritziz ingurumen eragin onargarria baitu, baldin eta neurri zuzentzaile eta babes neurri egokiak egikaritzen badira.

HIE 2 ARALARKO PAPELERA EREMUARI BURUZKO AMEZKETAKO ARAU SUBSIDIARIOEN

2. ALDAKETAK PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

Aldaketa puntualaren eremuak egungo HIE 2 Aralarko Papelera eta Zumadi udal eskolari dagokion ekipamendu komunitarioko partzela (g.10), g.10-1.2. partzela izena duena, hartzen ditu.

Honako helburu hauek ditu:

- Industriako partzelaren azalera mende balderantz zabaltzea, aurreikusitako eraikuntza berriak egin ahal izateko, eta eremuaren mugartea Papel Aralar SA sozietatearen jabetzenera egokitzea.
- Industriako partzelaren eraikigarritasuna dagoeneko antolatutakoez gain 3.700 m² gehiago handitzea, epe ertainerako eta luzerako aintzat hartzen ari diren proiektuak posible egiteko.
- Aurreikusitako eraikuntza berrien bolumetria arautzea, instalazio berriak funtzionalak izango direla bermatzeko, baina egungo eraikinen garaiera nabarmen gainditu gabe.
- 2019an onetsitako xehetasun azterketaren bidez egindako gehieneko lerro kaduren egokitzapenak antolamendu xehatua txertatzea.
- Udal eskolako jantokiaren egungo eraikina industriako partzelan sartzea, ez baita Udalaren eta Papel Aralarren arteko hirigintzako hitzarmenean adostutako lagapenetako bat, eta erabilera soziala izatera pasatzea, enpresako langileen elkarte gisa.

Aurreko apartatua 1. alternatibari buruz esandakoaz gain, honako informazio gehigarri hau gainera daiteke:

A. **HIE 2 Aralarko Papelera eremuan proposatutako aldaketak** Eremua berriz zedarritu da, industria partzela handitzeko (b.10); lurzoru urbanizaezina gehitu zaio, batetik, eta, bestetik, Zumadi udal eskolaren partzelaren zati bat.

Industriako partzela fabrikaren mende baldean kokatutako magalerantz zabalduko da, Papel Aralar enpresaren jabetzako lurretan, mendiari lurra kenduz, hondeaketa lan handien bidez eta horma ainguratuak eraikiz. Lurzoru urbanizaezinean zabaltze horrek 4.020 m²-ri eragingo die, guztira, bi zatitan, eta Aralarko Parke Naturalean *landazabal gune* gisa kalifikatutako lursailetan planteatu da.

Zumadi udal eskolaren partzelaren zati mugakidean, industriako partzelari eskolako egungo jantoki eraikina atxikiko zaio, zeinaren beheko solairua partzela industrialak biltegi gisa erabiltzen baitu. Zati horrek 201 m² gehitzea ekarriko du, eskolako partzelaren kaltetan.

Guztira, Papel Aralarren jabetzako industriako partzela 4.221 m² haziko da, hau da, egungo 48.950 m²-etatik 53.171 m²-ra.

Eraikuntzen altuerari dagokionez, Arau Subsidiarioen aurreko aldaketa puntualean ezarritako mugak mantenduko dira, -25 m-ko garaiera sestra gainean, gehienez ere-. Gehienezko altuera hori ez da biltegi eraikinetara mugatuko, eta ekoizpeneko eraikinetara eta energia ekoizteko eta/edo biltegiratzekoetara lotutakoetara zabalduko da. Nolanahi ere, egungo eraikinetako edo zabalpenetako ezeinek ez du gaindituko egungo biltegi automatikoaren garaiera.

Aparkalekuei dagokienez, 90 aparkalekuko gutxienezko zuzkidura bermatzeko hautua egin da. Gaur egun 76 plaza daude, guztira. Gutxi gorabeherako plano batean agertzen da horien kokalekua, baina argitu da aurreikusi gabeko guneetan ere aparkalekuak egin daitezkeela, etorkizunean industriako instalazioaren barruan egin daitezkeen birmoldatzeen ondorioz.

Azkenik, Arau Subsidiarioen aurreko aldaketa puntualean gertatzen zen bezalaxe, aurreikusitako antolamenduak ez du aurreikusi espazio libreen dagokion tokiko sistema sortzea, ezinezkoa baita behar horri udalerrirako erabilgarria izateko arrazoizko moduan erantzutea, eta, hortaz, ekonomikoki konpentsatuko da.



B. Udal eskolaren partzelan (g.10-1.-2) proposatutako aldaketak Partzelaren mugartea berriz definituko da. Helburua da egun Papel Aralarreko langileek elkarte gisa erabiltzen duten eraikina, eskola erabileraren parte inoiz izan ez dena, egungo jantokiaren eraikinarekin trukatzeari, zeinaren sotoa dagoeneko Papel Aralarrek erabiltzen baitu, eta partzela industrialaren parte izatera pasatzea, enpresako langileentzako elkarrearen erabilera soziala mantenduta.

Amezketan indarrean dauden Arau Subsidiarioek ez dute partzelaren gehieneko eraikigarritasuna zehazten, ezta antolamendu xehatuko beste ezein parametro ere, eta oraindik ez dira proposamen berriari dagozkion irizpideak ezarri; hortaz, ebazpena hurrengo izapidetze faseetara atzeratu da.

EGINDAKO KONTSULTAK

Behin Amezketako Udalaren eskaera jasotakoan, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak ukitutako administrazioei eta publiko interesdunari egin beharreko kontsulten izapidea egin zuen, 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 19. artikuluan eta 10/2021 Legearen, abenduaren 9koaren, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoaren, 68. artikuluan aurreikusitakoa. Fase horretan, honako entitate eta erakunde hauei egin zaie kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideen Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Plangintza eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- IHOBE.
- EEE(Energiaren Euskal Erakundea).
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Kantauriko Ur Konfederazioko Uren Ikuskatzaila.
- Gipuzkoako Uren Kontsultak.
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna)
- Tolosaldea Garatzen
- Tolomendi.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.
- Eguzki talde ekologista.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa taldea.
- Landarlan Ingurumen Elkartea.
- Haritzalde Naturzaleen Elkartea.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.



Era berean, hasierako agiria eskura egon da GFAko Ingurumen Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko web orrian, (www.gipuzkoaingurumena.eus), herritar guztiek bidezkozat jotako ingurumen arloko ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Erantzunak bidaltzeko epea bete ondoren, hauek izan dira erantzuna bidali dutenak:

- Eusko Jaurilaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak jakinarazi du kontsultaren xede den espedienteko dokumentazioa aztertu ondoren, ez dela beharrezkotzat jo haren inguruko txostena egitea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusiak erantzun du ez duela txostenik egin behar, aldaketaren xede den eremua Aralarko Parke Naturean dagoelako eta, hortaz, hura antolatzea ez dagokiolako Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSari, baizik eta ingurumen araudian edo ingurune naturalekoan ezarritakoari, 177/2014 Dekretuaren, irailaren 16koaren, EAEko Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onesten duenaren, 3. artikulua xedatutakoaren arabera.
- Uraren Euskal Agentziak (URA) jakinarazi du, txostenak egin dezakeen txostena gorabehera, kontsulta idazkia Kantauriko Ur Konfederazioari helarazi zaiola, 2/2013 Legean xedatutakoari jarraituz txostena egin behar badu ere. Hori hala izanik ere, URAk beste idazki bat bidali du, jarraian laburtuko dena, eta bertan aurkezten ditu Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketaren, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoaren, inguruan egindako oharra, uraren arloko bere eskumen espezifikoaren arabera. Jakinarazi du mendebaldeko magalera zabaltzeko Amezketako ibaiaren polizia gunean dagoela, eta, beraz, Kantauriko Ur Konfederazioaren baimena beharko dela nahitaez, URAn izapidetu beharrezkoa, eta baimen horren esparruan aztertuko direla, xehe-xehe, ezaugarriak eta eraginak, eta haren arabera ezarritako direla dagozkion preskripzioak.

Uholde arriskuari dagokionez, proposatutako aldaketak ez ditu aldatzen HIE 2 Aralarko Papelera eremuaren egungo baldintzak. Hala eta guztiz ere, gogorarazi du sestra gainean proposatutako aparkalekuek Plan Hidrologikoaren 43. artikuluan ezarritako baldintzatzaileak bete beharko dituztela, eta hobe dela erabilera hori uholde arrisku handieneko lekuetan saihestea, baita, batez ere, lehentasunezko fluxu eremuan, zeinak 350 m² dituen, eremuaren hegoaldeko muturrean. Halaber, udal eskolen partzelako etorkizuneko edozein planteamenduk, uholde arriskuko gunean kokatuta dagoenez, aintzat hartu beharko du indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudian ezarritakoa bete beharko duela, baita, bereziki, 45.3. *“Erabileren mugak uholde arriskuko gunearen gainerakoan”* artikuluan xedatutakoa ere.

Horrez gain, hornidurari dagokionez, planteatutako zabalpenak ur kontsumoa handitzea badakar, igoera hori zenbatetsi egin beharko da, Kantauriko Ur Konfederazioak baliabideak egotearen adierazpena igorri ahal izateko, Uren Legearen Testu Bateginaren 25.4. artikuluari jarraituz. Saneamenduari dagokionez, orobat, arroko organismoak ingurumen baimen integraturako egindako txostenari jarraituko zaio. Hala eta guztiz ere, baldin eta eraikigarritasuna handitzeagatik isurketaren baimenean ezarritako hondakin uren gehieneko emariak edo bolumenak edo ibaiadarraren ezaugarri fisiko eta kimikoak aldatzen badira, edo, aitzitik, dauden arazketa instalazioak nahikoak ez badira ingurumen alorrean ezarritako helburuak erdiesteko, isurketaren baimena aldatzeko eta berrikusteko izapideak hasi beharko dira.

- Kantauri Ekialdeko Ur Konfederazioko Uren Ikuskatzailak. Jakinarazi du ezen, eraikigarritasuna handitzeagatik isurketaren baimenean ezarritako hondakin uren gehieneko emariak edo bolumenak edo ibaiadarraren ezaugarri fisiko eta kimikoak aldatzen badira, edo, aitzitik, dauden arazketa instalazioak nahikoak ez badira ingurumen alorrean ezarritako



helburuak erdiesteko, isurketaren baimena aldatzeko eta berrikusteko izapideak hasi beharko direla. Horrez gain, aldagetak jasotako erabileren proposamenak bateragarria izan beharko du Kantauri Ekialdeko Mugapearen Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoaren berrikuspeneko, urtarilaren 24ko 35/20223 Errege Dekretuak onetsitakoko, honako artikulua hauek ezartzen dituzten mugekin, gehienbat: 37.6, 37.7, 37.8 eta 45.1. Aurrekoari lotuta, Kantauriko Ur Konfederazioaren baimena jasotzeko azkenean bidalitako eraikuntza proiektuek aintzat hartu beharko dituzte hemen argitaratutako edukiak: *“Eraikinen uholdeekiko zaurgarritasuna txikitzeko gida”* eta *“Eraikuntzak uholde arriskuko gunetan eraikitze eta birgaitzeko gomendioak”*. Halaber, gomendatu du proposatutako aparkaleku berriak uholde arrisku txikiaren duten lekuetan kokatzeko aukera aztertzea. Azkenik, eta ibilguen polizia gunean eta jabari publiko hidraulikoan egin beharreko edozein obra edo lanek aurreko administrazio baimena beharko dute, edo, bestela, arroko organismoaren aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpena.

- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak txosten teknikoa egin du antolamenduko eremuan dauden babes zibilaren arriskuen esanguratsuenen inguruan. Jakinarazi da haien artean daudela Amezketa ibaiaren ibilguari lotutako uholde arriskuak. Aztergai den eremua 10, 100 eta 500 urteko itzulera aldien uholde arriskuaren orbanetan dago, eta uholde arrisku potentzial esanguratsuko gunean (ARPSI ES 017-GIP-1-1). Aldaketak aurreikusitako bi zabalpenak uholde arriskuko gunetatik kanpo gelditzen dira, baina udal eskola dagoen g.10.1-2 partzela uholde arriskuko gunean dago. Jabari publiko hidraulikoarekiko eraginei, hari lotutako babes guneei eta uholde arriskuko guneei dagokienez, Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta EAEko Ibaiek eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoa bete behar da, eta une oro saihestu beharko da uholde arriskua handitzea. Instalazioak, hortaz, 500 urteko itzulera aldiaren uholde kotatik gorako instalazioetan jarri beharko dira, eta administrazio hidraulikoaren nahitaezko baimenean jasotako baldintzatzaileak bete beharko dira. Halaber, txostenean jaso da aztergai den eremuko prezipitazioen isomaximak 250 mm/egun eta 300 mm/egun artekoak direla 500 urteko itzulera aldirako, eta hori ere kontuan hartu beharko da egin beharreko obretarako egin beharko liratekeen drainatze lan posibleak diseinatzeko. Arrisku sismikoari dagokionez, Amezketa VI intentsitateko gunean dago, eta, horrenbestez, larrialdi sismikoko plana egitetik salbuetsita dago. Dena den, eraikuntza berrietan kontuan hartu beharko da 997/2002 Errege Dekretuak onetsitako Eraikuntza Sismorresistentearen Araua, hala zati orokorra nola eraikuntzakoa (NCSR-02). Azkenik, txostenean jakinarazi da Amezketan ez dela salgai arriskutsuen garraioagatik arriskurik, ezta Seveso III araudiari loturik ere.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du Aralarko paper fabrika oraindik izapidetzen ari den Amezketako HAPOaren aurrerakineko kultur ondarearen katalogoan sartu dela. Gainera, atezaintza Eusko Jaurlaritzaren babesteko proposatutako higiezin ONDAREA zerrendan dago, ondare interesagatik, eta babes ertaina du proposatua. Ondorioz, hartan egindako esku-hartzeek aintzat hartu beharko dute haren ondare balioa, eta dagozkion neurriak hartu beharko dira.
- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du jatorrizko fabrika multzotik irauten duen arkitektura intereseko elementu bakarra eremuaren sarreran dagoela: atezaintzako eraikina. Zuzendaritzaren arkitektura ondasunen inbentarioak proposatzen du ondasun kultural izenda dadila eta babes ertaina eman dakiola. Atezaintza pabiloi berria eraikiko den gunetik kanpo badago ere, eta planteatutako aldagetak hartan inolako eraginik izan beharko ez lukeen arren, gomendatzen da aldagetatik eratorritako eraikuntzako plangintzetarako edo proiektuetarako hura kontserbatzea baldintza izatea. Ildo horretan, iritzi dio eraginkorra dela aldagetaren izapideak baliatzea elementu hori babesteko, Arau Subsidiarioen ondare babestuaren katalogoan interes bereziko elementuen zerrendan sartuz. Zentzu horretan, Arau Subsidiarioen babes araudiaren egungo baldintzen arabera,



“kontserbazio zorrotzeko araubidea” aplikatu beharko litzaioke, hau da, gutxi gorabehera, “6/2019 Legearen ondoreetarako, oinarritzko babeseko ondare kultural”ei dagokien esku-hartzeen araubideren baliokidea, indarrean dagoen 6/2019 Legean.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak jakinarazi du zabaldu beharreko azalera eta paper fabrikaren egungo gainerako instalazioak Aralarko Parke Naturalaren eta KBEaren barruan daudela. Proiektuaren eta Aralarko Parke Naturalaren NBAParen arteko bateragarritasunari dagokionez, jakinarazi du 9. artikulua araber, debekatuta dagoela, oro har, Parke Naturalaren barruan papera eta kartoia fabrikatzeko jarduerak egitea, hirigunetzat definitutako guneetan izan ezik. Horrez gain, aipatutako NBAParen 16. artikulua xedatzen du “*Hirigunea eta azpiegiturak*” eremutik kanpo eraikuntzak egitea dagokion udalerraren arau subsidiarioek arautu beharko dutela, eta parkea kudeatzeko organo eskudunak onetsi egin beharko dituela. Horri dagokionez, proposatutako zabalpena landazabal gunean dago. Horrez gain, zabaldu beharreko guneek eta aurreikusitako eraikuntza berriek Batasunaren intereseko 6510 *Altitude txikiko segarako belardi pobreak* moduan kartografiatutako guneei eta harizti azidofilo bati eragiten diete. Bi habitatak Aralarko kudeaketaren xede diren elementu gakotzat jota daude, Aralar Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duen eta haren kontserbazio helburuak eta neurriak onesten dituen 84/2018 Dekretuaren arabera. Haren gomendioa da ezen, 21/2023 Legearen Zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritako moduan, planak Aralarko KBEan eragin negatibo hautemangarriak sortuko ez duela frogatzeko, informazioa eska diezaiola Aralarko KBEa kudeatzeko organo eskudunari –Gipuzkoako Foru Aldundiari–. Halaber, azterketaren eremua EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoan natura intereseko espazio baten barruan katalogatutako arro bisual batean dagoen arren, enpresaren egungo instalazioekin mugakidea denez, iritzi zaio paisaiari eta konektagarritasun ekologikoari ez zaiola nabarmen eragingo; dena den, gai horiek ingurumen azterketa estrategikoak aztertu beharko ditu zehatz-mehatz. Azkenik, jakinarazi du argitu egin beharko dela nola kudeatuko diren hondeatutako soberako lurrak eta harriak, eta horiek kokatzeko lekuak identifikatu beharko direla.

Irismeneko dokumentu hau igorri ondoren erantzunen bat jasotzen bada, hura Amezketako Udalari bidaliko zaio ahal bezain laster, kontuan hartu dadin Arau Subsidiarioen 2. aldaketa, HIE 2 Aralarko Papeleraren ingurukoa, eta ingurumen azterketa estrategikoa egitean.

INGURUMEN ARLOKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAU ITURRIAK

Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketak, HIE 2 Aralarko Papelera eremuaren ingurukoak, ezarritako ingurumen helburuek antolatutako eremuan dauden eta aurreikusi diren eraikuntzen paisaiako inpaktua ahal beste txikitu behar dute, eta industria jarduerak ingurunearen ingurumen kalitatean dituen eragin kaltegarriak arindu behar ditu, bereziki Amezketako herrigunean eta Aralarko Parke Naturalean dituenak

Gainera, aldaketa formulatzean, ingurumeneko jasangarritasun irizpide hauek hartu beharko dira aintzat:

- Ingurumenarekiko kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien gaintik; eta horretarako, ingurumen alderdiei dagokien garrantzia ematea aldaketa egiterakoan, eta bertan ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduketak txertatzea.

- Paisaiaren faktorea lehen faseetatik txertatzea, alternatibak hautatzean aintzat hartu beharreko funtsezko elementu gisa.
- Lurzoruaren kontsumoa ahal beste murriztea, bereziki lurzoru urbanizatu gabearena.
- Aldaketa ingurumena hobetzeko aukeratzat jotzea, eta ez soilik ingurumen inpaktuen iturri gisa. Ondore horietarako, aldaketa honako hauetarako balia daiteke:
 - Industria eremua antolatzeke, jarduerak ingurunean zaratagatik, usainagatik, kutsatzaileak isurtzeagatik eta abarregatik sortzen dituen ingurumen inpaktuak murrizteko moduan.
 - Industria jarduera eta espazioa zabaltzeak sortutako ingurumen inpaktuak konpentsatzea, aldaketak zeharka ukitutako espazioak edo elementuak ingurumenaren arloan hobetzeko neurri zehatzak egikaritzuz.
- Energia jasangarritasunetik eratorritako betekizunak txertatzea antolamenduan eta eraikuntzan.
- Ur baliabideak eta ur ingurunea –lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak– babestu, zaindu eta lehengoratztea, Uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak lortzen saiatuta. Ildo horri jarraituz, uren arloan gaur egun indarrean dagoen araudiak ezarritako distantziak eta zortasunak errespetatuko dira, eta egungo eta etorkizuneko isurketak egoki tratatuko direla bermatuko da.

Gainera, Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoa, egitean, kontuan hartuko dira honako arau eta dokumentu hauetan jasotako jasangarritasun irizpideak eta printzipioak:

- Nazio Batuen 2030 Agenda.
- Europar Batasunaren Ingurumenaren arloko VIII. Ekintza Programa Orokorra, 2030era artekoa.
- Europako Itun Berdea.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko Esparru Programa (2030).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Biodibertsitatearen Estrategia 2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategia 2050.
- Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030.
- Bultzatu 2050 Hiri Agenda.
- Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030.
- Klima Aldaketaren aurka borrokatzeke Gipuzkoako Estrategia 2050.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, urriaren 30ekoaren, Lurraren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bategina onesten duenaren, 3. eta 20. artikulua.
- 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren 3. artikulua.
- 7/2021 Legearen, maiatzaren 20koaren, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoaren 2. artikulua.

- 42/2007 Legearen, abenduaren 13koaren, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoaren, 2. artikulua eta 9/2021 Legearen, azaroaren 25koaren, Euskadiko Natur Ondarea Kontserbatzeari buruzkoaren, 3. artikulua.
- 1/2006 Legearen, ekainaren 23koaren, Urei buruzkoaren, 3. artikulua.
- 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, Planen eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenaren, 1. eta 2. artikulua.
- 90/2014 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoaren, 2. artikulua.

Honako hauek dira irismeneko dokumentu hau idaztean kontuan hartu diren ingurumen alorreko arau nagusiak, Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoa, egitean kontuan hartu behar direnak:

Europako araudia

- 92/43/EEE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeari buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, Ur Politiken Alorrean Batasun Mailako Esparrua ezartzekoa.
- 2002/49/EE Zuzentaraua, Zaratari buruzkoa.

Estatuko araudia

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurraren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatzeko akustikoari, kalitate helburuei eta soinu igorpenei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Ur Legearen Testu Bategina onartzen duena, eta berori garatzeko erregelamenduak.
- 35/2023 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren 2022-2027 Plan Hidrologikoa onesten duena.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Ekonomia Zirkularrerako Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa.

Autonomia erkidegoko araudia

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.
- 415/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, behin betiko onesten duena EAEko Kantauri Isurialdeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeako Lurralde Plan Sektoriala; eta 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, behin betiko onesten duena EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeako LPSaren aldaketa.



- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 4/2015 Legea, Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzekoa, eta berau garatzeko dekretua.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, eta haren geroko aldaketak.
- 9/2021 Legea, azaroaren 25koa, Euskadiko Natur Ondarea Kontserbatzeari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 169/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralarko gunea Parke Natural izendatzekoa.
- 168/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralarko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana (NBAP) onesten duena. Beranduago 146/2004 Dekretuak, uztailaren 13koak, aldatu zuen, eta 168/1994 Dekretuak, apirilaren 26koak, Parke Natural izendatu zuen.
- 84/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena.

HIE 2 ARALARKO PAPELERA EREMUAREN ANTOLAMENDUAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMENEN ALDERDIAK

Hasierako dokumentu estrategikoan aurkeztutako informazioa eta beste administrazio batzuetatik jasotako erantzunak aztertu ondoren, iritzi zaio Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoa, formulatzean, arreta berezia jarri behar zaiela ingurumenari buruzko honako alderdi hauei:

A. Bertako zuhaitziak eta Batasunaren intereseko habitatak Geoeuskadiren arabera, zabaltzea eta eraikuntza berriak egitea aurreikusi den gunean Batasunaren intereseko 6510 habitatak (*Altitude txikiko segarako belardi pobreak*) eta harizti azidofilo batek hartzen dute.

Eremua bisitatu ondoren, hasierako dokumentu estrategikoak segarako belardiak eta garo arruntak osatutako multzoak bakarrik detektatu ditu.

B. Naturgune babestuak Aldaketaren eraginpeko eremuan honako naturgune babestu hauek bereiz daitezke:

- **Parke Naturala.** Aralarko Parke Naturalaren barruan dago. Une honetan, Aralarko Ondare Naturalaren Espazio Babestuaren (Parke Naturala eta KBEa) NBAPa idazten ari da, baina izapideen hasiera-hasieran dago, eta, hortaz, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak kontuan hartzeko goizegi dela iritzi dio. Parke naturalaren antolamenduan ezberdintzen diren kategorien artean, egungo eraikinak, udal eskola barne, "*Hiriguneak eta azpiegiturak*" izenekoan daude, eta eraikin berriak, aldiz, *Landazabal gunean*, haien zati bat, gutxienez. Proiektuaren eta egungo NBAParen arteko bateragarritasunari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa

Zuzendaritzak kontsultaren erantzunean adierazi zuen ezen, haren 9. artikulua arabera, gunekako araudia gorabehera, eta hirigunetzat jotako gunetan izan ezik –Papel Aralar enpresaren jarduerak egun hartzen duena, esaterako–, debekatuta dagoela oro har Parke Naturalaren barruan papera eta kartoia fabrikatzeko jarduerak egitea. Halaber, 16.13. artikuluan adierazten denez, *Landazabal* guneko lurzorua hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa birkalifikatzeko, ez da NBAPa aldatu beharko. 29. eta 30. artikuluek, gainera, xedatzen dute *Landazabal* gunean eta *Hirigunea eta azpiegiturak* gunean aplikatu beharreko araudia izango dela ukitutako udalerri bakoitzeko Arau Subsidiarioena. Azkenik, aintzat hartu beharra dago Aralar Parke Naturala interes bereziko gune bat dela, eta Batasunaren intereseko espezie nekrofagoak elikatzeko babesgune bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean, baita hegaztiak tentsio altuko lineen aurka talka egitetik eta elektrokutatzetik babesteko eremua ere.

- **Aralarko KBEa.** Halaber, 84/2016 Dekretuak Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) ere izendatu zuen. Honako hauek dira haren elementu gakoak: basoak –pagadiak; artadiak; harizti azidofilo eta mesotrofoak; eta kantauriar haltzadia; baita haiei lotutako espezieak ere (bisoi europarra, muturluze piriniotarra eta ibai-karramarroa); belardiak eta belar formazioak, esaterako, zabaldu beharreko gunean kartografiatutako 6510 habitata, baita hari lotutako flora ere; labarreko fauna eta flora komunitatea; eta hainbat kiroptero espezie. Egungo eraikuntza gehienak KBEaren babes gune periferikoaren barruan daude, eta eraikuntza berriak, aldiz, KBEaren mugen barruan. 92/43/EB Zuzentarauaren 6.3. artikulua xedatzen duenez, edozein planek edo proiektuk, lekuaren beraren kudeaketarekin zuzeneko harremanik ez izan arren, leku horri nabarmen eragin badiezaioke, han izango dituen ondorioak behar bezala ebaluatu beharko ditu, haren kontserbazio helburuak aintzat hartuta. Aipatutako 6.3. artikuluan xedatutakoa betetzeari dagokionez, 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluaziokoak, Zazpigarren xedapen gehigarrian ezartzen du ezen sustatzaileak espazioa kudeatzeko organo eskudunari txostena eskatu ahaliko diola, kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendien eta Natura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari, plan, programa edo proiektu batek Natura 2000 Sareko espazio baten aurkako eragin nabarmenik sortuko ez duela frogatzeko. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak sustatzaileari gomendatu dio behar dituen kudeaketak egin ditzala, zazpigarren xedapen gehigarri hori betetzeko.

C. Jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak. Aldaketaren eremua Amezketa I gainazaleko ur masaren isurpen arroan dago, Oria ibaiaren unitate hidrologikoan. Amezketa ibaiak Papel Aralar industria instalazioen lurrak gurutzatzen ditu, hegoaldeko iparraldera, lurpean eremuaren erdigunean, baina gainazaleratu egiten da berriz Zumadi udal eskolaren eremutik hurbilen dauden bi pabiloien artean.

EAEko jarraipen sareko kontrol estazio bat dago instalazioetatik ur gora, OAM055 kodekoa, eta beste bat ur beheara, OAM117 deritzona. 2019-2023 aldian, lehen estazioan, egoera ekologiko, kimiko eta globala onak ziren; eta bigarrenean, aldiz, garai berean, egoera ekologikoa ertaina; kimikoa, ona; eta globala, ona baino okerragoa ziren.

Kantauri Ekialdeko Ur Konfederazioari egindako kontsultaren erantzunean jasota dagoenez, Papel Aralar enpresak lagapen bat du bere alde, Amezketa ibaiko ura biltzeko, Kantauriko Ur Konfederazioaren 2012ko otsailaren 24ko Ebazpenak emana. Lagapen hori 63,95 l/s-koa da, eta 20 urterakoa. Hasierako dokumentu estrategikoan azaltzen denez, ibaitik bildutako ura ekoizpen-prozesurako erabiltzen da, eta udal sarekoa, aldiz, langileen kontsumorako eta zerbitzu higienikoetarako. Planteatutako zabaltzeak ur kontsumoa handitzea badakar, igoera hori zenbatetsi egin beharko da, Kantauriko Ur Konfederazioak baliabideak egotearen adierazpena igorri ahal izateko, Uren Legearen Testu Bateginaren 25.4. artikuluari jarraituz.

Gainera, Kantauriko Ur Konfederazioak jakinarazi du hondakin urak Amezketa ibaiaren ibilgura isurtzeko baimena duela Papel Aralarrek (V/20/00042-2). Gaineratu du ezen, eraikigarritasuna handitzeagatik isurketaren baimenean ezarritako hondakin uren gehieneko emariak edo bolumenak edo ibaiadarraren ezaugarri fisiko eta kimikoak aldatzen badira, edo, aitzitik, dauden arazketa instalazioak nahikoak ez badira ingurumen alorrean ezarritako helburuak erdiesteko, izapideak hasi beharko direla isurketaren baimena aldatzeko eta berrikusteko.

Azkenik, fabrikaren mendebaldean kokatutako magalera egin nahi den zabalpena Amezketa ibaiaren gunean dagoenez, aintzat hartu beharko da ibilguen polizia gunean eta jabari publiko hidraulikoan edozein obra edo lan egiteko nahitaezkoa izango dela aurreko baimen administratiboa edo arroko organismoaren aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpena, Uraren Euskal Agentzian izapidetu beharko dena.

- D. Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko gune babestuak** Amezketa I eta II ur masak Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren (2022-2027) gune babestuen erregistroan daude, "*Hornidurarako ur bilketa duten guneak*" sailkapenarekin. Biei 50 eta 2.000 biztanle arteko populazio-tartea dagokie.

Horrez gain, eremua *Ur ingurunearekin lotutako habitatak eta espezieak babesteko guneen* barruan dago, Aralarko KBEan baitago. Halaber, Aralarko Parke Naturalaren barruan dagoenez, *Bestelako naturgune babestuak* izeneko guneen barruan dago.

- E. Arriskuak.** 105/2008 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoaren, 31.1 b) artikuluari jarraituz, ingurumen azterketa estrategikoari udalerraren arrisku naturalen mapa bat txertatu zaio. Gainera, ingurumen azterketa estrategikoak neurri zuzentzaileak ezarriko ditu, dauden arriskuak txikitzeko edo handitzea saihesteko, eta proposatutako plangintzak aintzat hartu behar ditu ingurumen arrisku horiek, erabilerak eta jarduerak arautzeko.

Aldaketaren eraginpeko eremuan dauden arriskurik garrantzitsuenei dagokienez, honako hauek aipa daitezke:

- **Uholde arriskua.** Aralarko Papelera eremua gurutzatzen duen Amezketa ibaiaren zatia uholde arrisku potentzial esanguratsuko gunean dago (UAPEG) (kodea: ES017-GIP-1-1), III. taldean. UAPEG horretarako egindako azterketetan ikusten da aurreikusi diren 3 zabaltze guneen artean hego ekialdekoari bakarri eragiten diotela oso-osorik 100 eta 500 urteko itzulera aldiko uraldiaren uholde guneek. Hegoalderen dagoen eraikuntza industrialaren zabalpenari oso gutxi eragiten diote 100 eta 500 urteko itzulera aldiko uraldiaren uholde guneek. Printzipioz, aurreikusitako aldaketak ez ditu aldatzen HIE 2 Aralarko Papelera eremuaren uholde arriskuaren egungo baldintzak, mendebaldean kokatutako magalerantz egindako zabalpena uholde arriskurik gabeko gune baterantz egingo baita.
- **Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.** Papel Aralar enpresa kokatuta dagoen egungo partzelaren zatirik handiena kutsatuta egon daitekeen industria lurzorutzat jota dago. Hala eta guztiz ere, baliteke oraingoan beharrezkoa ez izatea lurzorua kalitatearen inguruko adierazpen prozedura bat, 4/2015 Legearen, ekainaren 25ekoaren, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoaren, 24. artikuluan ezarritako inguruabarretako batzuk betetzen baitira.

- F. Zarata.** Industria jarduera bat antolatzeaz ari garenez, eta Amezketako herrigunetik hurbil dagoenez, ebaluazio prozesuan aintzat hartu beharko da jarduerak egungo hots mailak handituko dituen, egungoekin alderatuta, aldaketan proposatutako bi instalazio berriengatik,

baita haiei lotuta trafikoa handitu daitekeelako ere. Egin beharreko inpaktu akustikoaren azterketaren edukia 213/2012 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoaren, 37. artikuluan ezarritakoa izango da, eta bereziki garrantzitsua iritzi zaio hots kalitateko helburuak gainditzea eragozten duten antolamendu alternatibak aztertzeari, bereziki udal eskolen kasuan, haien mugak zorrotzagoak baitira. Ezarri beharreko neurriei dagokienez, egun indarrean dagoen ingurumen baimen integratuaren C.1.6. apartatuan eskatutako hots mailak gainditzea gertagarria ez izatea bermatzeko behar diren guztiak definitu beharko dira.

G. Paisaiaren kalitatea. Eremua Amezketaiko arro bisualaren parte da, zeina EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoan baitago, berezko balio oso altuaren kalifikazioarekin. Herrigunearen ia erdia hartzen duten enpresaren egungo instalazioen ondoan dagoela kontuan hartuta, ez da espero paisaia eraginik izango duenik, baina, hala ere, planteatutako eraikin berrien inpaktu bisuala txikitzeo ahalegina egin beharko da, eremuaren arau partikularretan paisaia integratzeko irizpideak eta baldintzak ezarriz.

H. Kultur ondarea. Jatorrizko fabrika multzoan irauten duen arkitektura intereseko elementu bakarra eremura sartzeko atezaintza eraikina da. Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritzaren arkitektura ondasunen inbentarioan proposatuta dago babes ertaineko kultur ondasun izendatzea. Planteamendua aldatzeak elementu horretan inolako eraginik izan beharko ez lukeen arren, zuzendaritza horrek gomendatzen du aldaketa honetatik eratorritako plangintzaren edo eraikuntza proiektuaren baldintza gisa ezar dadila elementu hori kontserbatu beharra. Horri dagokionez, iritzi dio neurririk eraginkorrena izango litzatekeela aldaketa izapidetzeak dakarren aukera baliatzea bide batez Arau Subsidiarioen ondare babestuaren katalogoa aldatzeko, bertan, interes bereziko elementuen zerrendan, atezaintza eraikina sar dadin eta *“kontserbazio zorrotzeko araubidea”* aplika dakion.

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA

Amezketako Udalak egin behar duen ingurumen azterketa estrategikoa (IAE) Amezketaiko Arau Subsidiarioen 2. aldaketaren, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari dagokionaren, zati bat izango da, eta bertan identifikatuko, deskribatuko eta ebaluatuko dira ingurumenean sortutako eragin esanguratsu posibleak, aldaketa eta teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarriak diren arrazoizko alternatibak aplikatzetik eratorritakoak. Helburua da hura aplikatzean ingurumenean sortutako eragin negatiboak saihestea edo txikitzea eta ingurumenean eta jasangarritasunean eragingo duten ekintza positiboak planteatzea.

Ingurumen azterketa estrategikoak, gutxienez, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du. Era berean, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ingurumenaren jasangarritasun txostenei buruz II. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du.

Ebaluatu beharreko eremu geografikoak nahikoa izan beharko du planean aurreikusitako jarduketek sortutako eragin guztiak aintzat hartzeko. Oro har, HIE 2 Aralarko Papelera eremua hartuko du, nahiz eta alderdi batzuetarako beharrezkoa izan daitekeen hura baino lurralde handiagoan izan ditzakeen eraginak aztertzea, esaterako, Papelera Aralar industria jarduerak paisaia izan ditzakeen eraginak edo Amezketaiko herrigunean eta bertako herritarrengan izan ditzakeenak (zaratak, usainak, kamioien trafikoa eta abar).

Eranskin horietan definitutako apartatuak garatzean, jorratu egin beharko dira txosten honetan adierazi diren alderdiak; administrazioek, erakundeek eta herritar interesdunek alegazioetan arazotsutzat jotako ingurumen arazoak; eta honako hauek:

1. Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketaren, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoaren, edukiaren eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekin duen lotura.

Ingurumen azterketa estrategikoan, Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketaren, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari dagokionaren, edukia jasoko da laburtuta (edo hara bideratuko da), eta laburpen horretan adieraziko dira aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako jarduera eta zehaztapenak; baita aintzat hartu diren gainerako alternatibak ere. Jarduketan denborazko plangintza eta, hala badagokio, aurreikusi diren garapenerako tresnak ere deskribatuko dira.

Halaber, plan horrek hiri antolaketako beste tresna batzuekin izan ditzakeen interakzioak, hala nola planarekin zerikusia izan lezaketen lurralde planekin eta plan sektorialekin izango dituen erlazioak, aztertu beharko dira. Kontuan hartu beharko dira, gutxienez:

- Aralarko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana eta Aralarko KBEa ezartzeko Dekretua.
- EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak (isurialde kantauriarra) Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala, eta haren 1. aldaketa.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027).
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, besteak beste, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiaren uholde arriskua kudeatzeko planaren berrikuspena eta eguneraketa onesten duena.

Zehaztuko du Amezketako Arau Subsidiarioaren 2. aldaketaren, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoaren, helburuak eta jarduketak eta eremuan eragina duten helburu eta zehaztapenen arteko koherentzia eta lotura zenbatekoa den. Xedea izango da helburu komunak bete daitezen sustatzea eta planteatutako jarduketa alternatibak ebaluatzea, gainerako planen eta programen helburuekiko teilakatzeak, gatazkak edo bateraezintasunak egon daitezkeenetan.

Era berean, aldaketaren eraginpeko eremuan aplikatu beharreko gainerako planekin sor litezkeen ondorio bigarren mailakoak, metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Era horretan identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero behintzat, Planaren inpaktuak identifikatu eta ebaluatzeko atalean aztertuko dira.

2. Nazioartean, Europar Batasunean, estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ingurumena babesteko ezarritako helburuak, eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat nola hartu diren egiaztatzea.

IAEan azaldu egin beharko da eremuaren antolamenduan nola txertatu diren irismeneko dokumentu honetan ingurumena babesteari eta jasangarritasunari buruz adierazitako irizpideak, edo Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoa, egiterakoan ezarritakoak, halakorik izanez gero; eta horretarako, ahal dela behintzat, finkatutako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabiliko dira.

3. Antolatutako eremuaren ingurumenaren eta haren bilakaeraren ezaugarriak, klima aldaketa kontuan hartuta

Azterketak antolatutako eremuaren eta haren ingurunearen ingurumen ezaugarrien deskribapena izan behar du, eta egungo egoeraren eta bilakaera posiblearen diagnosis egin behar du. Horretarako, beharrezko azterketa espezifiko guztiak egingo dira, kontsultatu diren

informazio iturriak eta bibliografia adieraziz eta lekuan bertan egindako lanaren eta erabilitako metodologiaren berri emanez.

Diagnostikoan honako hauek deskribatuko dira: paper fabrikaren ekoizpen prozesuak, industria kokapenaren eta inguruaren ezaugarriak, jardueraren ingurumen alderdiak (ingurumen baimen integratuko ingurumen zaintzako programatik eskuratutako datuak erabili ahaliko dira), industriagunearen eta Amezketako herrigunearen elkarreragina baldintzatzen duten faktoreak, eta guneko natura eta paisaia baliabideen egoera; gainera, bereziki babestu edo zaindu beharreko elementuak eta/edo baliabideak identifikatuko dira, baita planaren ingurumen ebaluaziorako garrantzitsuak izan daitezkeen bestelako alderdi batzuk ere.

Halaber, ingurumen dokumentu estrategikoan eta aurreko aldaketaren paisaia integrazioaren azterketan jaso ziren ustiapen fasearen inpaktuak arintzeko neurri zuzentzaileen eta konpentsatzaileen garapen mailaren diagnosia egingo da, eta neurri horiek aplikatzean lortutako emaitzak ebaluatuko dira.

Atal horretan, gainera, aztertutako eremuak bizi dituen ingurumen arloko presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek Arau Subsidiarioen aldaketan nola eragingo duten balioesteko, edota planak arazo horiek larriagotuko dituen aztertzeko.

Deskribapena ez da mugatuko ingurune fisikoaren ezaugarrietara; aitzitik, informazioa eman beharko du aldaketak ezarritako antolamenduaren ondorioz aldatu daitezkeen edo nabarmen eragin dakiekeen alderdiei edo aldagaiei buruz, esaterako, hots isurpenei eta kalitate akustikoari, Amezketako ezaugarri demografikoei eta abarrei buruz.

Orobat, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, garatzen duen dekretuak, hau da, Premiazko Neurriei buruzko 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, 31.1 artikuluan ezarritakoa betez, **jasotako aurreikuspenak hartzeko lurzoruek duten gaitasunaren azterketa aurkeztuko da**. Horretarako aintzat hartuko da, besteak beste: Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak eta URAk jabari publiko hidraulikoa babesteari eta eskaera berriei erantzuteko beharrezkoak diren ur baliabideei buruz emango duen irizpena, eta eraikigarritasuna handitzeagatik sor daitezkeen hondakin urak tratatzeko behar berrietarako egungo arazketa sistemak nahikoak diren zehazten duena. Halaber, kontuan hartuko dira aurretik zeuden azpiegituren, adibidez, errepideen, administrazio eskudunen txostenak, planean jasotako ezarpenek izan dezaketela aurreikusi diren eraginei buruzkoak.

Atal horretan, agiriari azkenean erantsiko zaizkion gai guztiei buruzko kartografia –eskala egokian egina– hartuko da oinarritzat.

4. Alternatibak aukeratzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Erabakitako alternatiba aukeratzeko arrazoiak.

Ingurumen azterketa estrategikoak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren hainbat alternatibaren ingurumen arloko analisia izan beharko du, Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketarekin, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoarekin, lortu nahi diren helburuei erantzuteko. Horretan, aztertutako alternatiba bakoitzak ingurumenean izan lezakeen inpaktua ebaluatuko da, eta planaren helburuei zenbateraino erantzungo zaien zehaztu, ingurumen arloko helburuei bereziki.

Hasierako dokumentu estrategikoak badu alternatiben aurreko analisi bat, baina ingurumen azterketa estrategikoak analisi hori zabaltzen etaosatzen saiatu behar du, eta bidalitako dokumentazioak duen industria instalazioaren gaitasun funtzionala handitzeko antolamendu alternatiba bakarretik (1. alternatiba) harago joaten, bertan jaso gabeko beste aukera batzuk aintzat hartuta, esaterako, eraikinen bestelako diseinu, kokapen edo banaketa batzuk, dagoeneko badauden eraikinen inpaktuaz gain eraikin berriek paisaian, ingurune populatuan eta Aralarko Parke Naturalean eta KBEn izango duten inpaktua txikituko dutenak.

Nolanahi ere, hautatutako aukerak behar bezala justifikatu beharko dira, eta, horretarako, zein metodologia erabili den adieraziko da, eta deskribatu egingo da zer neurritan hartu diren kontuan ingurumen alderdiak, alderdi tekniko eta funtzionalak, eta alderdi ekonomikoak, garatu behar den irizpide anitzeko azterketan. Azkenean aukeratutako alternatiba ez badator bat ingurumen balioespen onena daukan alternatibarekin, hori aukeratzeko arrazoiak behar bezala azaldu beharko dira.

Txosten horri, proposatutako alternatiba guztien ezaugarriak adierazten dituen dokumentazio kartografikoa erantsiko zaio.

5. Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketaren, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoaren, zehaztapenak eta jarduketek ingurumenean dituzten eragin esanguratsuen identifikazioa eta balorazioa.

Identifikatuko eta baloratuko da nola eragingo duten Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketan, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoan, aurreikusitako jardueren ingurumeneko hainbat elementutan, honako hauetan, besteak beste:

- Paisaia.
- Aralarko Parke Naturalaren eta KBEaren kontserbazio helburua.
- Lurzoruaren artifizializazioa.
- Amezketan ibaiaren uraren eta erriberen kalitatea.
- Arrisku naturalak (uholde arriskua).
- Industriagunearen eta Amezketako herrigunearen kalitate alkustikoa eta atmosferikoa.
- Monumentu ondarea.
- Kamioien joan-etorriak; baliabideen kontsumoa, esaterako, urarena eta energiarena; kutsatzaileen isurketak, esaterako, hondakin urenak; eta hondakinen sorrera.

Aztertutako inpaktuek zeharkako efektuak, metatze efektuak, efektu sinergikoak, epe laburreko, ertaineko eta luzeko efektuak, behin betiko eta aldi baterako efektuak, eta efektu positiboak eta negatiboak jaso beharko dituzte.

Identifikazioak eta balorazioa ez da mugatuko antolatutako esparrua fisikoki eraldatzean sortutako zuzeneko inpaktuetara (esaterako, lurra artifizializatzea eta landaredia kentzea). Kontuan hartu beharko ditu proposatutako antolamenduak ingurumenean sortutako zeharkako inpaktuak edo erabileren eta jardueren erregulazioak sortutakoak (adibidez, hondakin urak areagotzea industria erabilerak zabaltzeagatik).

Detektatutako inpaktuen garrantzia zehazteko, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, III. eranskinean eta 21/2013 Legearen, Ingurumen Administrazioari buruzkoaren, II. eranskineko F. apartatuan ezarritakoari jarraituko zaio.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, VI. eranskineko 8. apartatuan zehaztutako terminologia erabiliz, identifikatutako inpaktu bakoitzaren magnitudea eta intentsitatearen ezaugarriak zehaztu eta balioetsiko dira. Horretarako, inpaktua behar bezala deskribatzeko inpaktu adierazleak (adierazgarriak, esanguratsuak, baztertzailak, zenbakarriak eta identifikatzen errazak) eta inpaktuari dagokionez gutxieneko muga onargarriak finkatzeko ingurumen arloko kalitatezko helburu zenbait zehaztuko dira, indarreko legeria erreferentzia modura hartuz, baita eskumeneko organoen jarraibideak ere, kasu bakoitzean.

Azkenik, egokiago jotzeagatik inpaktuen ebaluazioa prozesuaren ondorengo beste fase batzuetara atzeratzen diren alderdiak arrazoitu egingo dira.

6. Prebentzio neurriak, neurri zuzentzaileak eta ingurumen integraziokoak

Ingurumen azterketa estrategikoak neurriak zehaztuko ditu Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketan, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoan, ezarritako jarduketek ingurumenean dituen inpaktu nabarmen bakoitza prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, arintzeko.

Aldaketaren ingurumen ebaluazioan paisaiako inpaktuek duten garrantzia aintzat hartuta, komeni da ingurumen azterketa estrategikoak paisaia integrazioko azterketa bat izatea, 990/2014 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, EAEko Lurralde Antolamenduan Paisaia Babesteari, Kudeatzeari eta Antolatzeari buruzkoaren, 7. artikuluan jasotako edukiak jasoko dituen. Gune horri eragin zion aurreko aldaketarako bat egin zenez, horixe oinarri gisa erabili eta aldatu ahalko da, aldaketa honek egindako zehaztapen berriak, aurrekoan proposatutako neurri konpentsatzaileen garapen maila eta emaitzen ebaluazioa aintzat hartuta.

Halaber, eremuaren antolamenduan ingurumen alderdiak sartzea ez litzateke mugatu behar gerta litekeen inpaktu bati erantzuteko neurriak ezartzera; izan ere, neurri horiek osatuz, neurriak ezarri beharko lirateke instalazio industrialaren inguruko ingurumen arazoak konpontzen eta ingurumen kalitate hobea lortzen laguntzeko.

Hortaz, aldaketaren ingurumen integrazioa da neurriak hauek hartuz egin beharra dago:

1. **Uholde arriskuak txikitzea** Zehazki, erabilera proposamen bat egin beharko da, bateragarria dena nagusiki Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoa berrikusteko araudiaren, 35/2023 Errege Dekretuan, urtarrilaren 24koan, onetsitakoaren (*PH araudia*), 37. eta 45. artikuluetan ezarritako uholde arriskuko polizia guneetan erabilerekin dituzten mugekin. Horrenbestez, oro har, jarraian adierazitakoa betekoa da:
 - 37.6) *art.*: Uholde arriskuko gunean ez da inolako hondakinen eta betegarrien pilaketarik onartuko, uholde arriskua nabarmen handitzen badu.
 - 37.7) *art.*: Uholde arriskuko gunean egindako jarduketa orotarako erantzukizunpeko adierazpen bat beharko da, zeinean higiezinaren jabeak edo titularrak argi eta garbi adieraziko duen ezagutzen duela dagoen arriskua, eta bere gain hartzen, baita aplikagarri zaizkion babes zibileko neurriak ere.
 - 37.8) *art.*: Obrak hasi aurretik, jarduketa sustatzen duenak Jabetzaren Erregistroaren ziurtagiri bat eduki beharko du, frogatzen duena eraikuntza uholde arriskuko gunean dagoela dioen erregistro ohar bat badagoela.
 - 43. *art.*: Sestra gaineen proposatutako aparkalekuek Plan Hidrologikoaren 43. artikuluan ezarritako baldintzatzaileak bete beharko dituzte, eta hobe da erabilera hori uholde arrisku handieneko lekuetan saihestea, baita, batez ere, lehentasunezko fluxu eremuan ere, zeinak 350 m² dituen, eremuaren hegoaldeko muturrean.
 - 45.1) Eraikuntzak egungo uholde arriskua eta mota aintzat hartuz diseinatuko dira, baita uholdeengatik larrialdietan behar duten irisgarritasuna kontuan hartuz ere. Aurrekoari lotuta, Kantauriko Ur Konfederazioaren baimena jasotzeko bidalitako eraikuntza proiektuek aintzat hartu beharko dituzte hemen argitaratutako edukiak: “*Eraikinen uholdeekiko zaurgarritasuna txikitze gida*” eta “*Eraikuntzak uholde arriskuko guneetan eraikitze eta birgaitze gomendioak*”
2. **Ingurumen inpaktuak prebenitzea**, ingurumen alderdiak plangintzaren lehen faseetatik txertatuz, eta ingurumen inpaktu txikiko antolamendu alternatibak hautatuz, neurri



zuzentzaileak aplikatzeko beharra txikitzeko. Neurri horien artean egongo dira, besteak beste, honako hauek:

- Eraikin berriak kanpotik gutxi ikusteko moduan kokatzea eta diseinatzea.
 - Eraikuntzak industria jarduerak Amezetako herrigunean dituen inpaktuak txikitzeko moduan banatzeko aukerak aztertzea.
3. **Prebenitu ezineko ingurumen inpaktuak zuzentzea**, obra fasean eraldatutako lursailen eta elementuen lehengoratze ekologikoa eta paisaiakoa barne.
4. **Prebenitu eta zuzendu ezineko inpaktuak konpentsatzea**. Horien artean, honako hauek aztertzea iradoki da:
- Industriagune osoa paisaian hobeto integratzeko jarduketak, eraikuntza berriak integratzeko hartutako neurrietatik hara
 - Aralarko Parke Naturalaren eta KBEaren barneko intereseko habitatak lehengoratzea, hala badagokio espazio babestu horretako landazabal guneen urbanizazioa konpentsatzeko.
 - Amezetako herriguneko beste gune narriatu batzuen ingurumena eta/edo paisaia hobetzeko jarduketak.

Ingurumen integrazioko neurriak aldatetaren hirigintzako dokumentazioan eta hura garatzeko proiektuetan jaso beharko dira. Horien kostu ekonomikoa zenbatetsiko da, horiek finantzatzeko moduak deskribatuko dira eta horiek egikaritzeko denborazko plangintza ezarriko da.

7. Planaren eraginen ingurumenaren zaintzako programa.

Ingurumen azterketa estrategikoan jaso beharko da Amezetako Arau Subsidiarioen 2. aldaketak, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoak, ingurumenean izan ditzakeen inpaktuak zaintzapean izateko programa bat, identifikatutako inpaktu garrantzitsu bakoitzaren jarraipena egin ahal izateko, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak betetzeko eta horiek eraginkorrak izateko, baita han zehaztutako ingurumen helburuak lortzeko ere.

Horretarako, programak honako hauei buruzko informazioa jaso beharko du aldian-aldian:

- Proposatutako ingurumen helburuen betetze maila.
- Plana martxan jartzetik etorritako ingurumen ondorio kaltegarrien garrantzia.
- Neurri prebentibo, zuzentzaile, eta dagokionean, konpentsatzaileen ezarpena eta horien eraginkortasuna, eta neurri horiek planaren eta egikaritze proiektuen segidako garapen dokumentuetan sartzea.
- Aurreikusi ez diren baina ingurunean elementuetan azaldu diren ingurumen ondorio kaltegarrien identifikazioa.
- Kasuan kasuko sektorean (Parke Naturala, ura, hondakinak, zarata, errepideak, jarduera sailkatuak, eta abar) eskumena duten erakunde edota administrazioek bidezko baimenetan ezarritako ingurumen baldintzak betetzea, baita udal mailako baimenetan ezarritakoak ere.

Xede hori betetze aldera, ikuskapen programak honako datuak jaso beharko ditu:

- Jarraipena egin beharko zaien ingurumen sistemak, alderdiak edo aldaerak identifikatzea.

- Egin beharreko jarraipen eta kontrol jarduerak, bakoitzaren metodologia (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna eta abar) eta kronograma adierazita.
- Jarraipen horretan erabiliko diren adierazleak, bakoitzaren unitateak eta gehieneko edo erreferentziako mailak adierazita.
- Ingurumen jarraipena egiteaz arduratuko diren pertsonak edota erakundeak.
- Egin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna.
- Aurreikusi den aurrekontua.

8. Laburpen ez teknikoa

Ingurumen azterketa estrategikoan helarazitako informazioaren laburpen ez tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatza emango duena publiko orokorrak ulertzeko moduan.

Laburpen horretan, honako hauek jasoko dira, gutxienez: Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa, HIE 2 Aralarko Papeleta eremuari buruzkoa, egitearekin lortu nahi diren helburu orokorrak; aztertu diren alternatibak; horietako bakoitzak ingurumenean ekarriko dituen eraginen laburpena; eta azkenean erabakitako irtenbidea edo irtenbideak aukeratzeko arrazoiak.

Laburpen horren osagarri gisa, diseinatutako neurri zuzentzaileak deskribatuko dira, eta herritarren zein administrazioen parte-hartze prozesuko ondorioak adierazi.

Era berean, alderdi aipagarrien dokumentazio grafikoa erantsiko zaio.

9. Alternatiben eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena

Alternatiben azterketari gutxi gorabeherako azterketa ekonomiko bat erantsiko zaio, kostuaren eta onuraren azterketa eta azterketa ekonomiko eta finantzarioa aintzat hartuta, eta, ahal den neurrian, ingurumen eta gizarte alorreko kanpoko gastuen azterketa ere sartuta.

Halaber, apartatu horretan sartuko da Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa, HIE 2 Aralarko Papeleta eremuari buruzkoa, aplikatzeak izan ditzakeen eragin negatiboak prebenitzera, murriztera edo konpontzera bideratutako neurrien kostuaren zenbatespen eta/edo aurrekontu xehatu bat, bermatzeko bertatik eratorritako ingurumen kostuak internalizatzen direla. Neurri horiek finantzatzeko moduak ere sartu beharko dira, Amezketako Udalaren kargura egin beharrekoak eta, hala badagokio, hirigintza proiektu edo jarduketan sustatzaileek hartu beharrekoak bereiziz.



INGURUMEN EBALUAZIOAN ETA ZAINZTA PROGRAMAN AINTZAT HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBO EDOTA KUALITATIBOEN PROPOSAMENA.

Alternatiben ingurumen ebaluazioa egiteko eta ingurumen zaintzako programarako hautatutako adierazleak aldagai konbinazio bat izango dira, eta aukera emango dute egiaztatzeko betetzen direla, alde batetik, Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketak, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoak, bere gain hartzen dituen ingurumen helburuak, eta, bestetik, plana garatzen den bitartean ingurumen eraginen aurreikuspenak. Era horretan, ingurumen helburuak betetzen ez badira edo horietan aldaketak sortzen badira, neurri zuzentzaile osagarriak txertatu ahal izango dira.

Ingurumen adierazleak:

- Zehaztutako ingurumen helburuekin eta irizpideekin lotuta egon behar dute, plana egiten eta ezartzen esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzen lagunduko dien benetako kudeaketa tresna moduan funtziona dezaten.
- Neurgarriak izan behar dute, eta denbora serie jakinetan aztertzeko modukoak. Denboran zeharreko aldagarritasuna adierazteko modukoak izan behar dute, haiek aztertzea zilegi izan dadin, joera negatiboak prebenitu edo zuzentzeko.
- Gutxi izan behar dute, eragindako eragile guztiek erraz uler ditzaten. Horretarako, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dute.
- Eskuragarri egon behar dute, adierazle horiek lortzeko informazio iturri askotara jo beharrik gabe.

INFORMAZIO ETA KONTSULTA MODALITATEAK

21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 21. eta 22. artikuluetan eta 10/2021 Legearen, abenduaren 9koaren, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoaren, 73. artikuluan xedatutakoa betetzeko, Amezketako Udalak honako jarduketa hauek egingo ditu Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa, HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzkoa, onesteko prozedura substantiboan aurreikusitako izapideen barruan:

- a) Ukitutako administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsulta egingo die, planaren edo programaren alde aurreko bertsioari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruz.
- b) Plan edo programaren hasierako bertsioaren eta ingurumen azterketa estrategikoaren informazio publikoko izapidea, aldizkari ofizialean iragarki bat jarriz. 45 egun izango dira, gutxienez, aztertzeko eta oharrak helarazteko.

Hori guztia egiteko, ukitutako administrazio publikotzat eta publiko interesduntzat joko dira Ingurumen Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak irismeneko dokumentu hau egiteko kontsultatutako administrazio, entitate eta pertsonak —agiri honetako, baita plana izapidetzeko prozesuan zehar udalak identifikatu ditzakeen bestelako erakunde eta interesdunak ere (ukitutako partzelen jabeak, herritar elkarteak eta abar).

INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO EPEALDIAREN OSTEAN PLANEAN IZAN DAITEZKEEN ALDAKETAK



21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, plana edo programa behin betiko onetsi aurretik, Amezketako Udalak Ingurumen Administraziooko Zuzendaritza Nagusiari eskatuko dio ingurumen adierazpen estrategikoa egin dezala, eta eskaera horretan ingurumen azterketa estrategikoaren espediente osoa sartu beharko du, hauek osatutakoa:

- HIE 2 Aralarko Papelera eremuari buruzko Amezketako Arau Subsidiarioen 2. aldaketaren hirigintza dokumentuak.
- Ingurumen azterketa estrategikoa.
- Inpaktu akustikoaren azterketa.
- Dagokion araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen kopiak eta kontsulta eta informazio publikoko izapideetan egindako alegazioak.
- Laburpen dokumentu bat. Bertan, Amezketako Udalak deskribatu egin beharko du nola integratu diren planaren azken proposamenean ingurumeneko alderdiak, ingurumen azterketa estrategikokoak, eta nola egokitu den irismeneko dokumentura, zeintzuk izan diren egindako kontsulten emaitzak eta nola hartu diren kontuan.

Halaber, kontuan hartu beharko da plana izapidetzean eta gero kontsulta eta informazio publikoko izapidearen ondoren aldaketak proposatzen badira, ingurumenean ebaluatu gabeko eragin nabarmenak izan ditzaketenak eta, edozein kasutan, 21/2013 Legearen 72. artikuluan jasotako kasuren bat bada, Udalak zuzendaritza honi jakinarazi beharko diola, eta plan edo programan aldatutako alderdiak ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa bidali beharko duela.

Donostian, 20024ko azaroaren 22an.

Ingurumen Administraziooko zuzendari nagusia

Sin.: Miriam Oca Pascual